

GENERO-IDENTIDADETIK BEREZKO IDENTIDADEA SORTZERA

Gizakiok, ez gara identitate aldaezinarekin jai. Bizitzak, bizi garenaren arabera, pentsatu, modelatu eta eraldatzeko aukera emoten deusku.

Gure burua ezagutu eta garenaren definizio- interesa ez da berria, aspaldikoa da. Historian zehar, gai hau oso garrantzitsua izan da bai Filosofian bai Psikologian.

Identidade-kontzeptua ezinbestekoa da gaur egungo gertatzen diren egoerak ondo ulertzeko. Sexu-diskriminazioa, arraza-diskriminazioa, emakumeok pairatzen ditugun egiturazko diskriminazioak, egoera guztiek analisi zehatza behar dituzte , beste identitate berriak sortzen subjektu politiko zehatzak definitzen.

Identidadeak, pertsona edo taldeko baten berezitasunak edo ezaugarriak biltzen ditu, besteengandik bereizteko, berezko nortasuna egituratzen prozesu horretan.

Identidadea da pertsona edo talde bateko berezko ezaugarriak, berezitasunak edo azpierak. Beste talde edo kolektibo batetik ezberdintzen, berezko identitatea sortzen eta sustraitzen.

Era berean, ikur eta baloreen sistema osatzen gure eguneroko beharrei erantzuteko.

Identidadea, beraz, prozesu bat da, eraldakorra eta eraldatzailea.

Tamalez, beste ezberdintasuneekin gertatzen dan moduen, kanpoan ixten deusagu ezberdinari. Gizarte-bazterketara zigortzen dogu kanpoan usten eta identitate ezberdinen arteko hierarkiak sortuz.

Banakako nortasunaren eraikuntza, prozesu konplexu eta luzea da.

Zenbat eta aukera gehiago orduan eta anitzagoa eta anitzagoa bilakatu.

Feminismoak sortutako Andra-subjektu identitateari esker, emakumeok, zabaldu ahal izan dogu gure nortasuna genero-inposaketarik kanpo, patriarkatuaren sistematik kanpo. Ireki gara eta berreraiki izan ahal dogu

gure identitatea askatasun gehiago sentitzen. Eraldatzaileak, sortzaileak izaten, osotasunean bizitzeko. Eta bide horretatik jarraitu gura dogu asko egiteke izan arren, arlo kolektiboan zein banakakoan, identitate garatu bat lortzeko.

Identitateak, askotariko hedadurak hartu ahal ditu gure alde guztietan garatu ahal izateko. Alde guztiak edo identitate motak definitu ahal doguz:

Identitate soziala, identitate erlazionala, nortasun kolektiboa, Identitate etikoa, nortasun fisikoa, identitate sexuala, genero-identitatea, besteak beste.

Aipatutako faktore guztiek eragiten dabe gure identitatearen eraikuntzan. Testuinguru kulturalak, sozialak eta politikoak aldarazi ahal deusku gure identitatea.

Identitatea, beraz, gure ahalmena eta gure garapenaren gida izan ahal da. Holan, gorputza, burua, emozinoak, konpromezu soziala eta pertsonala, banakako identitatea sortzen deusku. Osoko garapen hau genero-aginduaren arabera baldintzatuta dago sexu-bakoitzari esleipenaren eredu. Gizonezkoen eta andrazkoen baloreak hierarkizatzen hortik, talde-identitate bereiztuak eta hierarkizatuak sortuz, gure banakako identitateak murrizten.

Gaur egungo gizartean hipersexualizazioetako une kulturalean bizi gara. Identitate sexuala bereziki nabarmentzen. Gure nahia eta gure orientazio-sexuala be gure identitatearen parte badira, baina ez dira ere ez, definitzen gaituzten bakarrak.

Andreoi, historikoki, sexu biologikoak gure gizarte zeregina baldintzatu du. Sistema Patriarkalak gizarte-antolakuntza bat sortu zuen berenberegir eginda emakumezkoen balore guztiak menderatzeko eta zapaltzeko.

Mundu mailan, gaur egungo andreok, gizarteratzen gara gure sexua eta generoaren arabera. Askotan, andra jatzoagaitik ere selektiboki hiltzen gaituzte herrialde batzuetan.

Ondorioz, gure emakume identitatea testuinguru kaltegarri horretan moldatu izan da gure psikian finkatzeko nor garen.

Mendeetan zehar, Sistemak batez ere, erditzeko eme giza eta etxea zaintzaren arduradun definitu gaitu bai eta inguruko gizonak sexualki asetzeko puta gisa.

Duela 2 mende baino gehiago, Feminismoa, "Ideologia eta Mugimendu bezala" Patriarkatuko subordinazioaren injustizia salatzen sortu zen. Historioan zehar, andreen ekarpena erdigunean jartzen, balioa ematen. Andra izatearen harro sentitzen hasi ginan gure buru-jabetasuna sustatuz modu askoren bidez. Eta hori guztia Feminismoari esker lortu da eta ez Psikologiari ezta Filosofiari esker ere.

Feminismoari esker ahaldundu ahal izan gara, taldeko identitatea eratzeko eta holan, sortu genduan "andra-subjektu politikoa" Patriarkatuaren analisia eginez, andra guztion sufrimendutik eta aislamendutik ihes egin ahal izateko eta gure arteko ezberdintasunak eta zehetasunak kontuan hartzen: Arrazarena, klase sozialarena, generoarena eta abar.

Mugimendu Feministan diseinatu izan doguz estrategiak eta ekintzak aurrerapen sozialak lortu ahal izateko. Gizartearen garapenerako.

Gure aldarrikapenerako, beraz, subjektu-politikoaren defendatzea ezinbestekoa da andra guztiok bizi garen zapalkuntza salatzen eta eraldatzeko. Baldintza kulturalak, klasekoak edo arrazakoak ezberdinak izan arren.

Beraz, Feminismoaren funtzioetako bat izan da Emakumeen identitate kolektiboa zein banakakoa sortzea.

Baina zein da Andreen egoera mundu mailan? Zapalkuntzaren egoera eta emakumeen kontrako indarkeria gaituztat emon ahal dogu? Herrialde aberatsetan emakumeen eskubideen garapena bermatuagoa izan arren gaituztat emon ahal dogu?

Emakumeok, emakume hutsa izateagaitik, gure gorputzean indarkeri mota ezberdinak pairatzen doguz. Indarkeri hori, batzutan, jaio baino lehen hasten da. Feto bat emakumezkoa dala deskubritzen danean haurdunaldi etenak eragiten dira. Adibidez, Chinan, haurdunaldi eten sailkatuak egiten dira. Ondorioz, 1982. urtean, 100 Neskatilako 109 mutil ziren, azkenengo urteetan, 100 neskatilako 118 mutil.

Nesken hilketa sailkatuak oso zabaldua dagoz be bai herrialde askotan. Indian, adibidez, praktika hau egunero egiten da. Batzutan, neskatilak hiltzen dabenez sexua ikusterakoan, beste egoera batzuetan, ez jake ematen behar daben osasun-arreta edo gitxiago elikatzen deuse gaixotzeko arriskuan eta

mediku-arreta emon barik. Horrexegaitik, munduko herrialde batzuetan neska-mutilen ratioa 80-100ekoa da.

2010 eta 2015 tarteko urteetan modu batean edo bestean, hil dituzten nesken hilketen estimazioaren arabera, 126 milioi emakume hil dituzte mundu osoan.

2 milioi Nigerian, 4 milioi Pakistanen, 45 milioi Indian, 2 milioi Bangladeshen, 68 milioi Chinan eta 2 milioi Indonesian¹.

Haurtzaroan zehar, beste indarkeri mota ditugu: Neskeen trata sexualerosketarako. Mutilen trata be, ere bai egiten da, baina neurri txikiagoan emoten da eta herrialde batzuetan, pederastia normalizatzen da umeen ezkontza behartuak legalki onartzen. Legeak askotan, ezberdintasun estrukturala sustraitzeko erabiltzen dira.

Geroago, emakumeen kontrako beste indarkeri motak ikusten doguz. Sexu bidezko ugalketari erlazionatuta dagoana: Afrikan, andreok, derrigorrezko haurdunaldiak eukitera behartuta gaude edo nahigabeko haurdunaldi jarraiak ekitera euren gorputzak zirtzikatuz anemia eta infekzioaren ondorioz. Kontinente horretako herrialdeetan, infibulazioak eta clitoridektomiak egunero egiten dira. Eta interes politikoaren arabera, derrigorrezko antzuteak be, praktikatzen dira.

Eta zer esanik ez, alokairu sabelei buruz, non Sistemak emakumeen gorputzak saltzen ditu, gure baginak, ontzi hutsak izango balira bezala.

Hori dela eta, sexu indarkeriaren datuak ikaragarriak dira.

Emakumeen gorputzak herrialde txiroetan zein aberatsetan, merkantzia bezala hartzen da. Gure gorputzak, erosgai. Herrialde txiroen emakumeak herrialde aberatseko gizonen desira sexualak asetzeko daude.

Andreen gorputzak, merkantzia hutsak bihurtzen dira, leku batetik bestera eroaten gorputzetik aterramendurik haundiena ateratzeko, "pertsonek" suntsitu arte.

Herrialde aberatsetan be, emakumeen kontrako indarkeri tasak Europan, oso altuak eta kezkarriak dira:

Frantzia adibidez, 121 emakume hil zituzten pasa den urtean. Aurreko urtean baino % 11 biktima gehiago, 3 egunetik behin biktima 1 daukate. Japonian, kopuru berbera, Alemanian, 147 emakume hil zituzten 2017an.

¹ The Women's Atlas. Joni Seager. 2018

Europako iparraldeko herrialdeetan, munduko berdintasun politikarik onenak eduki arren, indarkeri- tasa altua izaten jarraitzen du.

Euskal Herrian, gauza bera gertatzen da. Urtez urte, indarkeriaren hildakoaren tasa igotzen ari da. Datu ofizialei begira, 2002an, 42 emakume hil dituzte. Pasa den urtean,

Feminismoak hondino, ez du lortu Patriarkatuaren ondorioak latzena etetea. Eta gertatzen diren indarkeri-motak, gero eta krudelagoak dira.

Datu guzti honeek emozionalki eragiteaz gain, feministak bezala uste dogu oso inportantea dala andra subjektu politiko kontzeptua defendatzea gure aldarrikapeneetan eta zentzu horretan, adi egon behar garen seinalea, analisi hori ez galtzeko.

Azkeneko urteotan, antza denez, Patriarkatuaren sistemaren kontrako subjekturik urratsaileena identitate askorekin bete da. Sozialki abanguardisteena askotariko identitateak eukitea da. Azkeneko bolada honetan, identitate guztiak aipatu eta goraiatuak izan behar dira pairaturiko diskriminazioak salatzen. Gay, lesbiana, transexual, transgenero, intersexual, asexual,...besteak beste. Guzti horiek ikusgai egiteko beharrezkoak eskubideak eta berdintasuna eskatzeko eta aldarrikatzeko.

Eta hori guztia, silegi eta beharrezkoa denez, emakumeentzat ondorioak ekarri ditu gure aldarrikapenak izkutatatu egin dituelako. Apurka apurka, borroka feministarako erakundeetako guneei izena aldatu diete: Emakume buruzko ikerketa zenari Genero ikerketa deitu zioten, eta orain, dibertsitate ikerketa esaten diete, "andra" hitza desagerrarazten. Eta hitza ez da desagertu soilik gobernuko erakundeetan, Mugimendu Feministan be gertatzen ari da.

Queer Teoriarekin ados ez gauden feministok, eta Feminismo Erradikalan ideologiko kokatzen garenok, harrিতa gaude ez soilik desagertzen dalako andra hitza esparru publikotik, baizik eta bertan behera usteratzen derrigortzen gaituztelako. Beste identitate batzuk guri dagokigun gunea beteten.

Gure ustez, Feminismoaren ideologiaren onarria ez dogu ahaztu behar. Feminismoaren jatorrizko tesiak oso beharrezkoak dira gaur egun.

Onartu behar da, nola ez, talde feminista batzuek utzi dituztela jatorrizko tesiak horiek beste teorietan kokatuta.

Jakin badakigu, beste taldeek pairatzen dituztela diskriminazio mota ezberdinak eta horregaz modu sakonean enpatizatzen dogu. Ados gaude estrategiak diseinatu behar direla diskriminazio guztiekin akabatzeko. Baina estrategiak egiterakoan, nekez ulertuko dogu geure burua ez definitzea subjektu bezala, mundu mailan %52ko biztanleria zapalkuntzan egonda.

Agian, egoera hau bideratu ahal dira aldarrikapen ezberdinak gune espezifikoak sortzen, talde bakoitzak behar duen protagonismoa lortzeko. Gure ustez, agenda feministaren erdigunean andra subjektu politikoaren estrategiak diseinatu behar dira. Talde feminista guztien artean lehentasunak eta beharrei eztabaidatzen ahalik eta akordio gehienetara heltzen. Talde guztien ezberdintasunak onartzen ekintza guztiak bateragarriak ez direlako.

Hau guztia, gure ustez garrantzitsua da injustizia ez delako modu berberan defendatzen Feminismoaren jatorrizko tesietan kokatuta ez zaudenean. Hierarkia ez da salatzen modu berean. Aldarrikapenak lausotzen dira helburu garrantzitsuenak ahaztuz.

Feministok bagenekien generoaren garrantzitsua zela giza-antolaketan. Bagenekien be bai, ezinbestekoa zela andrazkoen subordinazioan eta betidanik salatu izan dogu esteriotipoen mugak eta kalteak pertsonen garapenerako. Baina zoritxarrez, teoria feministaren analisia ez da murgildu gizarte osoan. Testuinguru horrerik banakako nahiak nabarmentzen dira. Eta horren arrakasta ikusi ahal ditugu diskurtso askotan. Gaur egun errazagoa da gure biologia baino genero kultura aldatzea.

Feminista askok pentsatzen dogu pertsonen osoko garapenean kokatu behar garala, genero estereotipotik irteten, horiekin akabatzeko pertsona guztien ahalmenak garatu ahal izateko.

Emakumeok, haurtxarotik emon deuskuen mezua izan da gure gorputza desegokia dela, edo lodiegia, argalegia, titi txikiegiak,...holan eztutu izan gaituzte dieteekin, kirurgia estetikoarekin, gerrikoekin, depilazioekin,

edertasun ereduak esan deusku behin eta berrero gure gorputzak okertuta daudela, zuzendu behar ditugula nahiz eta askotan, gure osasunaren kontra egin agindutako eredura heltzeko.

Gure ustez, gure gorputzak ez dira okertzen. Eta ez dira okertzen be, errekak, hodeiak, zuhaitzak,..natura garelako. Okertzen den bakarra, guretzat, gorputzaren begirada hori.

Une historiko honetan uste dogu ezinbestekoa dela mezu nahastuak ez bidaltzea gizarteari. Horren ondorioak izan ahal direlako arriskutsuak eta larriak.

Amaitzeko, andrazkoen identitatearen kontzeptua Feminismoan oso inportantea izan da. Horreri esker, andra-subjektua sendoago eraikitzen hasi ginen gure beharraak eta lehentasunak definitzen agenda feminista ondo diseinatuta. Bide horretatik Patriarkatua hankaz gora ipiniko dogu eta gizartea eraldatuko dogu hierarkizazio eta estereotipo guztiez askatzen.

Gure etorkizuna, gure eskuetan dago. Mugimendu Feminista izan da azken mendetako eraldatzailerik haundiena. Feministen esku, hasitako iraultzarekin jarraitzea aurrerapen sozial gehiago lortu ahal izateko.

